



Eugenio Artetxe Palomar  
Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendaria  
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza  
Segurtasun Saila

Jaun hori,

Larrialdiak kudeatzeko legea aldatzeko Lege Aurreproiektuaren berri jaso genuen Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan iragan abenduaren 18an, euskaraz eta gaztelaniaz, Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Segurtasun Saileko Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritza horretatik bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 22.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Larrialdiak kudeatzeko legea aldatzeko Lege Aurreproiektua aztertu ondoren, egungo hizkuntza araudia urratzen ez duela adierazten dut.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineke eragina.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartu zuen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 17. artikulua erakunde komunak esku uzten du pertsonen eta ondasunen babesa eta ordena publikoaren bermea. Halaber, autonomia erkidegoak bakarreko eskumena du toki araubidea ezartzeko, eta autonomia erkidegoko nahiz toki administrazioetako funtzionarioen estatutua arautzeko, betiere estatuaren eskumenei kalterik egin gabe.

Eskumen horien babesean onartu zen apirilaren 3ko 1/1996 Legea, Larrialdiak Kudeatzekoa.

Bestalde, estatu mailan aintzat hartzekoak dira urtarrilaren 21eko 2/1985 Legea, Babes Zibilar buruzkoa, eta martxoaren 23ko 393/2007 Errege Dekretua, larrialdi egoerak eragin ditzaketen jardueretan aritzen diren zentro, establezimendu eta tokien auto-babeserako oinarriko araua onartu zuena.

Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legea onartu zenetik urte ugari igaro direnean, araua eguneratzeko beharra ikusi da, eta beraz, orain izapidetzen ari den Lege Aurreproiektuaren bitartez hainbat aldaketa egingo dira horretan.

Edukiari dagokionez, Lege Aurreproiektuak 46 artikulua, xedapen gehigarri bat, xedapen indargabetzailea, eta hiru azken xedapen ditu. Xedapen indargabetzailearen ondorioz indarririk gabe geratuko da martxoaren 8ko 34/1983 Dekretua, koordinazio operatiborako zentroak sortu zituenak. Orobat, aipatzekoa da Lege Aurreproiektuaren azken xedapenetako lehenengoaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen erakunde autonomiadunetako kidegoak eta eskalak antolatzen zituen otsailaren 25eko 1/2004 Legea aldatuko dela, Goi Mailako Teknikarien Kidegoan Larrialdiei Aurre egiteko Eskala sortzeko xedez.

Lege Aurreproiektuaren lehenengo artikulua bidez idazketa berria emango zaio apirilaren 3ko 1/1996 Legearen 1. artikuluko aurreneko paragrafoari, honela utziz: *“Lege honen xedea da Euskal Autonomia Elkarte Administrazio Publikoen jardura antolatzea, pertsonen, ondasunen eta ondare kolektiboaren naturak, teknologiak edo gizakiak eragindako kalteak, arriskuak edo mehatxuak saihesteko, gutxitzeko edo zuzentzeko, izan ditzakeen eragin edo eragileen handitasunak edo larritasunak, horren ondorioz, eragin kolektibo larria, hondamendia edo lazera publikoa dakarrenean; baita horietatik erator daitezkeen urgentziazko edo larrialdiko beste kasu batzuetan edota hainbat zerbitzu eta eragileen koordinazioa eska dezaketenak ere. Aurrekoen zati dira hondamendia edo lazera publikoa proboka dezaketen meteorologia-fenomenoak, bereziki klima-aldaketaren eraginaren ikuspegitik”*.

Bestalde, aztergai dugun Lege Aurreproiektuan badago hizkuntza aipurik, hogeita laugarren artikulua bidez 24 bis artikulua berria erantsiko baitzaio apirilaren 3ko 1/1996 Legeari. Artikulu berri horren hirugarren paragrafoan jasoko denez, 112 telefono-zenbakiko arreta-zerbitzuari buruz, *“Zerbitzua eman beharko da bai euskaraz bai gaztelaniaz. Segurtasun arloan Eusko Jaurlaritzan eskumena duen sailak beharrezko bitartekoak jarri beharko ditu Europar Batasuneko estatuetako gainerako hizkuntza ofizialetan zerbitzua emateko, baita ezinduek ere zerbitzua eskuratu ahal izango dutela ziurtatzeko bitartekoak ere”*.

Aldatuko den apirilaren 3ko 1/1996 Legean ere hizkuntza aipu bakarra dago, 24. artikulua hirugarren paragrafoaren arabera larrialdiak koordinatzeko guneen antolaketak eta egiturak zerbitzuak etengabe eskainiko dituela bermatuko baitu, eta baita laguntza eske egiten diren deiei arreta eskainiko zaiela ere, Europar Batasuneko hizkuntza ofizial guztietan, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialez gain. Halere, Lege Aurreproiektuaren hogeita hirugarren artikulua bidez idazketa berria emango zaio 24. artikulua honi, eta hizkuntzen aipamena desagertuko da, 24 bis artikulua berria agertzeko.

Lege Aurreproiektuaren eraginez sortuko den 24 bis artikuluko hizkuntza aipamena egokia bada ere, kontuan izan behar dugu Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen eraginez Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioek zeregin zehatzak izango dituztela, eta harremanak izango dituztela herritarrekin.

Zentzu horretan, Autonomia Estatutuaren 6. artikulua ezarritako euskararen eta gaztelaniaren ofizialtasunarekin bat, Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak hizkuntza betekizun zehatzak ezarri zituzten euskal herri

administrazioei, eta horrela, xedatzen du herritarrek euskara eta gaztelania erabil dezaketela, ahoz nahiz idatziz, herri administrazioekiko harremanetan, arreta hizkuntza berean jasotzeko eskubidea barne (5.2.a eta 6.1 artikulua), botere publikoek bi hizkuntza ofizialak erabiliko dituztela jasotzeaz gain (8. artikulua).

Ondorioz, Lege Aurreproiektuak euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragin hobea izan dezan, bere bitartez Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legean xedapen berria txertatzeko proposatzen dugu, eduki honekin:

-Lege hau betetzean Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioek euskara eta gaztelania erabiliko dituzte, eta herritarrek haiekin dituzten harremanetan nahi duten hizkuntza ofiziala, ahoz zein idatziz, erabiltzeko eta arreta hizkuntza berean jasotzeko duten eskubidea bermatuko dute.

Adeitasunez,

Gasteizen, 2014ko urtarrilaren 16an

Ángel Lobera Revilla  
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria